● El Área LGBTI del Ayuntamiento de Berriozar y personas vecinas del municipio han impulsado la creación de un espacio abierto a la ciudadanía para fomentar acciones en materia de diversidad sexual y de género. El colectivo se reúne el último miércoles de cada mes y cuenta con una dirección de correo electrónico (lgtbi@berriozar.es) y un grupo de WhatsApp al que pueden sumarse todas las personas interesadas. Una de las actividades previstas por este espacio es un taller de cuatro sesiones en mayo y junio abierto a toda la ciudadanía de Berriozar que se anunciará oportunamente a través de redes sociales y cartelera.

Berrikusi da emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloa

● Berriozarko Udalak barne lan bat egin du Berriozarko emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinaziopean jarduteko tokiko I. protokoloa berrikusteko, 2021ean sinatutako hura, hain zuzen. Dokumentuaren helburu nagusia da agiria sinatu duten zerbitzu guztiek kalitatezko erantzun bateratu bat eman dezatela, betiere Berriozarren indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen ezaguri indibidual eta kolektiboetara egokitua. Gaur egun, protokoloaren edukiaren berri ematen ari dira. Hori dela eta, otsail eta martxoan, protokoloari lotuta dauden zerbitzu guztietan egin dira aurkezpenak (Gizarte Zerbitzuak, Osasun Etxea, Iruñalde Zentroa, DBHI, Osasun Mentaleko Zentroa, Udaltzaingoa...), langile guztiek protokoloaren edukiaren berri izateko eta oinarritzko ezagutzak eskuratzeko.

Revisado el protocolo para actuar ante la violencia contra las mujeres

● El Ayuntamiento de Berriozar ha realizado un trabajo interno de revisión del I Protocolo Local para la Coordinación de la Actuación ante la violencia contra las Mujeres de Berriozar firmado en 2021. El objetivo principal del documento es dar una respuesta homogénea, de calidad y adaptada a las características individuales y colectivas de las mujeres que enfrentan violencia en Berriozar por parte de todos los servicios firmantes. Actualmente, el protocolo está en fase de difusión y, por ello, durante los meses de febrero y marzo se han realizado presentaciones en todos los servicios implicados (Servicios Sociales, Centro de Salud, Centro Iruñalde, IESO, Centro de Salud Mental, Policía Municipal...), para que todo el personal lo conozca y pueda adquirir conocimientos básicos.

Adinekoen Sare Komunitarioa sortu da

Berriozarko adineko talde batek ekimen bat abiarazi du adinekoen parte-hartze aktibo sustatzeko, adinekoek gizartegintzan aritzeko eragile aktibo gisa duten garrantzia nabarmentzeko eta erkidego inklusiboago eta aberasgarriagoa eraikitzeko. Adinekoen Sare Komunitarioa asteartero eta ostegunero biltzen da 18:00etan "Iruñalde" adinekoen udal zentroan, bi monitore profesionalak lagundua (Mikel eta Iratxe). Bileretan gustura aritzen dira hizketan eta jarduerak prestatzen, lagun giro atseginean.

Horrela, joan den otsailean, mozzorro jantziak egin, eta inauteri segizioan agertu ziren mozzorroturik.

Hainbat jarduerak egin dituzte, ekimena duela lau hilabete abian jarri zutenetik: Adinekoen Nazioarteko Eguna gogora ekartzeko ekitaldia (urriak 1); "Gurekin ez dauden pertsona maiteen omenaldia eta oroitzapena" (azaroak 1), eta belaunaldiarteko topaketa bat, "Kontatuz Eguberriak", abenduaren 30etik urtarrilaren 2ra liburutegian burutua.

Proposamenek izandako harrera ona ikusirik, sare komunitarioak aditzera eman du aurten ere jarduerak egingen dituztela. Era berean, taldean sartzera gonbidatu dituzte astia, indarra eta esperientziak trukatzeko gogoia duten adineko guztiak.



Nace la Red Comunitaria de Personas Mayores

Un grupo de personas mayores de Berriozar ha puesto en marcha un proyecto para fomentar la participación activa de las personas mayores, destacar la importancia de este colectivo como agente activo y comprometido con la sociedad y construir una comunidad más inclusiva y enriquecedora. La Red Comunitaria de Personas Mayores se reúne todos los martes y jueves de 16:00 a 18:00 horas en el Centro municipal de personas mayores "Iruñalde", acompañados de dos monitores profesionales, Mikel e Iratxe. Durante estos encuentros se dedican a conversar, di-

señar actividades y disfrutar de un rato agradable en compañía. Así, el pasado mes de febrero confeccionaron los disfraces con los que participaron en el desfile de Carnaval.

Desde que pusieron en marcha el proyecto hace cuatro meses han llevado a cabo varias iniciativas: un recordatorio del "Día Internacional de las Persona Mayores" (1 de octubre), un "Homenaje y recuerdo a los seres queridos que ya no están con nosotros" (1 de noviembre), y el encuentro intergeneracional "Cuéntame tus Navidades" que tuvo lugar en la Biblioteca del 30 de diciembre al 2 de enero. La buena acogida ha llevado a la red comunitaria a anunciar que volverán a programarlas este año. Asimismo, animan a todas las personas mayores que tengan tiempo, energía y ganas de compartir experiencias a unirse al grupo.

ANA
peluquería
Ana Rodríguez

T. 948 354 116 • 674 815 917
Plaza de los Donantes, 2 • Berriozar



EPALZA MASAJEAK

KIROL MASAJEAK
OSTEOPATIA
KIROMASAJEA

+34 622 872 283

@masajesepalza

Zortziko, 1 Berriozar
(Decathlon ondoan)



Arantza Gomez
Agente inmobiliario

La inmobiliaria de Berriozar

644 648 738



exp
REALTY

Eguneko Zentroan jarduerak egiten hasi dira animaliekin

Iruñalde Eguneko Zentroa erabiltzen duten 15 lagunek "Llunia" elkartearen lehen jardunaldian parte hartu zuten, joan den otsailaren 13an. Hau da, elkarteak txakurrak erabiltzen ditu, propio aukeratuak eta behar bezala entrenatuak, pertsonen berariazko funtzioen hobekuntza sustatzeko. Lehen saioan jarduera aurkeztu eta arlo fisikoa landu zen. Jardueran esku hartu zuen galgoa pilotan eta boloetan jolastan aritu zen parte-hartzaileekin. Guztira, bost saio egingen dira hilero, otsailetik ekainera, hainbat arlo lantzeko, hala nola arlo fisikoa, kognitiboa, estimulazio sensoriala eta emozionala. Arloen arabera, txakur batek edo bik parte hartuko dute.

Txakurren bidezko esku-hartzeak zabaltzen ari dira. Izan ere, azterlan askok erakutsi dute onuragarria dela animalia batekin harremanetan egotea, ona maila fisikoan, sozialean eta psikologikoan eta, horrez gain, ona ere kortisol mailak jaisteko eta, era berean, odol eta arterien presioa murrizteko, antsietate maila altuak dituztenengan; gainera, estresa murriztu, eta ongizatea naiz erlaxazioa sustatzen ditu, animaliak ukitze edo ferekatze hutsarekin, eta jarduera fisikoa eta gizarte harremanak sustatzen ditu, animaliekin eta gainerako pertsonekin elkarrengaitzeko motibazioa izatearen ondorioz.



El Centro de Día se apunta a las actividades con animales

Las 15 personas usuarias del Centro de Día Iruñalde participaron el pasado 13 de febrero en la primera jornada de intervención asistida con perros "Llunia", una actividad que, con la ayuda de perros seleccionados y debidamente entrenados, busca promover la mejoría de funciones específicas del usuario. La primera sesión sirvió para hacer una presentación de la actividad y trabajar el área física. El galgo que intervino en la actividad jugó a la pelota y a los bolos con los y las participantes. En total se van a realizar cinco sesiones al mes, de febrero a junio, y se trabajarán diferentes áreas: física, cognitiva, estimulación sensorial y emocional. En función de las áreas participarán uno o dos perros.

Las intervenciones con perros son una práctica cada vez más extendida, ya que son numerosos los estudios que han demostrado que el hecho de estar en contacto con un animal no solo aporta beneficios a nivel físico y a nivel social y psicológico, sino que también rebaja los niveles de cortisol y disminuye la presión sanguínea y arterial en aquellas personas con altos niveles de ansiedad, reduce el estrés, promueve el bienestar y la relajación con el simple hecho de tocarlos o acariciarlos y fomenta la actividad física y las relaciones sociales al tener la motivación de interactuar con ellos y con los compañeros y compañeras.



Inaute giro ederra Eguneko Zentroan, flamenko doinuen eskutik

● Iruñalde Eguneko Zentroan ere inauteriak ospatu zituzten. Horrela, joan den otsailaren 28an, erabiltzaileek arropa flamenkoak jantzi eta Mendialde ikastetxearen inaute segizioan parte hartu zuten, Eguzki plazan: emakumeek xala jantzirik eta loreak ilean apaindurik, eta gizonek, txalekoa eta kapela jantzirik. Dena giro alaietan eta umore onean. Esan behar da erabiltzaile guztiak burubelarri aritu zirela beren moztorro-jantziak prestatzen aste osoan.

Alegría carnalera del Centro de Día a ritmo de flamenco

● El Centro de Día Iruñalde también se sumó a la fiesta del Carnaval. El pasado 28 de febrero, sus usuarias y usuarios se vistieron con trajes flamencos (ellas con chal y flores en el pelo y ellos con chaleco y sombrero) para participar en el desfile de Carnaval del Colegio Mendiadea que se celebró en la plaza Eguzki. Fue un día lleno de ilusión y buen humor que puso el broche de oro a una semana de preparativos en la que todas las personas usuarias dedicaron su tiempo a la elaboración de los disfraces.

INAUTERIAK / CARNAVALES



TURBO
AUTOESCUELAS

TU AUTOESCUELA EN BERRIOZAR

Ven a nuestras oficinas e infórmate
de nuestros servicios y tarifas

C/ Iruñalde, 1 • 31013 • Berriozar
948 948 30 06 20 | 636 585 086
turboberriozar@turboautoescuelas.com

www.turboautoescuelas.com


Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal

Berriozar



ZURE IRAGARKIA /
ANÚNCIATE
948 13 67 66

**BERRIOZARKO POSTONTZI GUZTIAN /
BUZONEO EN TODOS LOS DOMICILIOS**







38 urtean lanean aritu eta gero, erretiroa hartu du Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko psikologoak, Carlos Gurrutxagak, joan den azaroaren 20an, zehazki. Azken asteotan, Carlos Gurrutxagak ikusi du ez dela alferrekoa izan berak egindako lan komunitarioa, berak artatutako pertsona asko joan baitzaizkio besarkada bana eta eskerrak ematera. Haren lankideek ere esker oneko hitzak izan dituzte, Carlosen lana aintzat hartuz eta miretsiz. “Maitasuneko keinu horiek pentsarazi didate zerbait ongi egin dudala. Beti izan dut zuzeneko harremana familiekin eta gazteekin, nire babesa agertzeko”.

Carlos 1986an hasi zen psikologo lana egiten, orduko Antsoaingo Zendea, Berriozarko kontzejua hartan sartua baitzegoen. Ez ziren garai gozoak, gazte aunitz heroinaren menpean baitzeuden. Drogen Plan Nazionala abian jartzearen ondorioz, udalek lanpostu bat sortu zuten prebentzioa lantzeko. Deialdi horri esker, Carlos Berriozar eta Antsoaingo Gizarte Zerbitzuetan hasi zen lanean. “Gizarte hezitzaile bat, gizarte langile bat eta psikologo bat ginen. Gure eginkizuna zen familiek zer premia zituzten bildu eta atzematea, eta gero, landa lana egitea”. Zuzeneko harremana funtsezkoa zen prebentzioa egiteko. “60ko, 70eko eta 80ko urteetan, Berriozarrek immigrazio handia

jaso zuen, biztanleria nabarmen handituta. Heroína azkar-azkar zabaldu zen gazteen artean, eta guk ahal bezala erantzuten genien herritarren beharrei, gogoz eta eskura genituen tresnak erabiliz, garai hartan ez baikenuen laguntza talderik” 1991n, Antsoain Zendea desegin eta Berriozar udalerrri bihurtu zen, bere udala eratuta. Drogamenpekotasun Planen ondorioz, aldatetak iritsi ziren. Gizarte Zerbitzuak mankomunatu eta lau alorretan banatu ziren. Carlosi Haurrak eta Familia programa egokitu zitzaion, eta aurrerantzean, nerabeen arazoak izan zituen ardatz, bai eta alkohol eta kalamuaren kontsumo goiztiarra eta pertsonen arteko harremanak ere.



El que fuera psicólogo de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berrioplano, Berriozar, Itza y Juslapeña durante 38 años se jubiló el pasado 20 de noviembre. Las últimas semanas de Carlos Gurrutxaga le han servido para comprobar que la labor comunitaria que ha desempeñado no ha caído en saco roto y muchas personas a las que atendió se han acercado para darle un abrazo y agradecerle su trabajo. También sus compañeras/os han tenido palabras de reconocimiento y admiración. “Las muestras de cariño me han hecho pensar que algo he hecho bien. Siempre he mantenido un contacto directo con las familias y la juventud para apoyarles”. Comenzó su labor de psicólogo en 1986, en la en-

tonces Cendea de Ansoáin, en la que estaba integrado el concejo de Berriozar. Eran tiempos difíciles porque había muchos casos de jóvenes enganchados a la heroína. Con la puesta en marcha del Plan Nacional de Drogas se dio el visto bueno para que los ayuntamientos crearan un puesto que abordara la prevención. Gracias a esa convocatoria, Carlos entró a formar parte de los Servicios Sociales que atendían a Berriozar y a Ansoáin. “Éramos un educador social, un trabajador social y un psicólogo. Nuestra función era recoger y detectar las necesidades de las familias y luego realizar trabajo de campo”. El contacto directo era fundamental para llevar a cabo la prevención. “En los años 60, 70 y 80 Berriozar recibió mucha inmigración, y la po-

blación aumentó considerablemente. La heroína se extendió rápidamente entre la juventud y nosotros respondíamos a las necesidades de la ciudadanía como podíamos, con ganas y con las herramientas de que disponíamos, porque en aquella época no teníamos equipos de apoyo”. En 1991 la Cendea de Ansoáin se disuelve y Berriozar se convierte en municipio con ayuntamiento propio. Con los planes de Drogodependencia llegaron los cambios. Los Servicios Sociales pasaron a ser mancomunados y se dividieron en cuatro áreas. A Carlos le asignaron el programa de Infancia y Familia y se centró en los problemas de la adolescencia, el consumo precoz de alcohol y cannabis y en las relaciones interpersonales.

Jakizu zer den taxi-bonua

Berriozarko Udalak taxi-bonua izeneko laguntza eskaintzen die hilero taxa ordaintzeko % 33tik gorako desgaitasuna dutenei eta garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonari. ACODIFNA elkarteak kudeatzen duen aurre-ordainketa txartelaren bidez ordaintzen da (Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Nafarroako Koordinakunde Elkarte).

Txartela pertsonala eta besterenezina da eta oso funtzionamendu erraza du. Taxi bat hartzen den bakoitzean, taxi-bonuaren bidez ordaindu behar da, edozein banku-txartel balitz bezala.

Bi hilean behin, 80 euroko laguntza sartzen da txartelean (40 euro hilero). Dirua sartzen den unean, aurreko hilabeteetako saldo soberakina kentzen da, hau da, ez daiteke metatu gastatu ez den saldoa. Rural Kutzako edozein kutzazainetan kontsultatu daiteke saldoa. Inolako zalantzarik baduzu edo argibidea behar baduzu, jo ACODIFNAko egoitzara (Labayen Doktorea, 15 behea) edo deitu telefonoz (948 366 739 / 676 993 990).

Conoce el bonotaxi

El bonotaxi es una ayuda mensual que ofrece el Ayuntamiento de Berriozar para el pago del taxi. Está destinada a personas con grado de discapacidad superior al 33% y con dificultades para acceder al transporte colectivo. Se paga a través de una tarjeta prepago gestionada por ACODIFNA (Asociación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Navarra).

La tarjeta es personal e intransferible y su funcionamiento es muy sencillo. Cada vez que se coge un taxi, se realiza el pago con el bonotaxi, como si fuera otra tarjeta bancaria. Cada dos meses se recarga la tarjeta con una ayuda de 80 euros (40 euros por mes). En el momento de la recarga, se retira el saldo sobrante de los meses anteriores, es decir, no se puede acumular el saldo no gastado. Se puede consultar el saldo en cualquier cajero de Caja Rural.

Si tienes alguna duda o necesitas más información, contacta con ACODIFNA en su sede (Doctor Labayen, 15 bajo) o por teléfono (948 366 739/ 676 993 990).



2024ko mendekotasun eta autonomia programaren balantzea

• Datozen hilabeteotan, Berriozarko elkarteendako dirulaguntza deialdiak aterako dira, gure herrian berdintasuna sustatzeko jarduerak eta proiektuak aurten antolatzeko.

Erakunde onuradun bakoitzak gehienez 2.000 euro jasoko ditu, eta laguntzak ez du gaingidutiko aurkezten den aurrekontuaren % 75 (eskabidea legez eratu dagoen elkarte batek egin behar du; ez, pertsona fisiko batek).

Balance del Programa de dependencia y autonomía 2024

• Durante los próximos meses se convocarán las subvenciones destinadas a las asociaciones de Berriozar para la organización de actividades y proyectos en el ámbito de la igualdad que se realicen durante el año 2025 en el ámbito territorial del municipio.

El importe máximo para cada entidad beneficiaria (la solicitud debe realizarla una asociación constituida, nunca una persona física) no sobrepasará en ningún caso la cantidad de 2.000 euros, no excediendo el 75% del presupuesto presentado.

Den-dena inpresio digitalean

Todo en impresión digital

- planoak • irudiak eskaneatu • kautxuzko zigiluak • kopiak • koadernaketak • plastifikazioak • fakturak eta albaranak • txartelak • kartelak • paper gauzak
- planos • escaneo de imágenes • sellos de caucho • copias • encuadernaciones • plastificaciones • facturas y albaranes • tarjetas • carteles • papelería

Pza. Donantes de Navarra, 9 (Decathlon ondoan) Berriozar
Tel. 948 076 495
a-zero@a-zero.eus

De lunes a jueves, 9:30-13:30 y 16:00-18:00
Viernes, 9:00 - 17:00
Asteleheneretik ostegunera, 9:30-13:30 eta 16:00-18:00
Ostiraletan, 9:00-17:00

Ana Salvatierra

Iruñalde, 1 bajo-trasera (Plaza San Esteban) Berriozar
948 301 151

Centro de Estética



500 parte-hartzaile baino gehiago Eolos Race lasterketan

Otsailaren 15 eta 16ko asteburuan, oztopo lasterketa baten lehen edizioa jokatu zen Berriozarren. Estatu mailako hiru probak eta gure herrian jokaturako horrek osatzen dute Eolos Race League izeneko lasterketa. Lehiaketa, zehazki, Berriozarren bertan eta Ezkaba mendian egin zen; parte-hartzaileek, beraz, herriaren ingurune naturala gozatzeko aukera izan zuten.

Larunbatean, 240 lagun aritu ziren herri proban, zailtasun handiagorekin edo txikiagorekin, 5 km-koa eta, guztira, 20 oztopo zituen. Igandean, berriz, atleta eskarmentudunen txanda izan zen eta, guztira, 262 parte-hartzaile aritu ziren 7 km-ko eta 25 oztopoko ibilbidean edota 11 km-ko eta 30 oztopoko proban. Azpimarratu behar da neskak parte-hartzaile guztien % 39,5 izan zirela.

Enpresa sustatzaileko jendeaz gain, 10 boluntario aritu ziren antolaketan laguntzen eta lasterketaren segurtasuna zaintzen.



Más de 500 participantes en la carrera Eolos Race

El fin de semana del 15 y 16 de febrero Berriozar acogió la primera edición de una carrera de obstáculos que forma la Eolos Race League junto a otros tres eventos de ámbito nacional. La competición transcurrió por Berriozar y el monte Ezkaba, brindando la oportunidad a las y los participantes de disfrutar del entorno natural de la localidad.

La prueba, conformada por tres recorridos con diferentes niveles de dificultad, contó con 240 participantes el sábado en la categoría popular de 5 km y 20 obstáculos y 262 participantes el domingo en las carreras para atletas experimentados de 7 km con 25 obstáculos y 11 km y 30 obstáculos. Uno de los datos más destacados fue la participación femenina, con un 39,5% del total.

Además de la empresa promotora, la organización contó con la colaboración de 10 personas voluntarias que ayudaron y velaron por la seguridad de la carrera.

Martxoan, mendia ardatz

Mendialdiaren bigarren edizioa egin da martxoan, hau da, BKE Mendi Eskolak antolatutako mendi zikloa. Horrela, martxoan zehar, erakusketak, antzerkia, solasaldiak eta mendi filmak izan dituzte, gai sozialak jorrratuta, guztiak ere sorkuntza artistikoari lotuak.

Mendialdiaren jarduera nagusietako bat "Montaña en femenino" erakusketa izan da, Martxoaren 8aren karira Jon Martínez Ibarrek Kulturgunean ikusgai jarria. Bestalde, Berriozarko mendizaleek Mikele Urrozen "Mendia" euskarazko antzezlanaren estrainaldia gozatu zuten. Martxoaren 20an, berriz, "Konfiantza itsua" do-

kumentala eman zen, Ana Zamoranok Peña Labarga egin eta, ondoren, kirol inklusiboari buruzko solasaldia; zehazki, ikus desgaitasuna dutenen mendizaletasunari buruzkoa. Zikloaren azken jarduera hilaren 7an egin zen, ostegunarekin, herriko emanaldien txanda izan baitzen: "Kazbek, izotzeko mendia", Amaia Arangiz, Guratz Azpirotz eta Olatz Azazetak egin, eta "El río subterráneo del Monte Perdido", Jose Javier Ruiz Zubikoa 'Jotas'ek eta Otxola Espeleologia Taldeak ondua.

Mendi zikloaren harira, gai-

nera, mendiko ilustrazio, argazki eta jarduera lehiaketak antolatu dira, guztira 40 irudi aurkeztuta. Lanak bi astez egon dira ikusgai kiroldegian eta, hemendik gutxira, irabazleak nor izan diren jakinaraziko da, ikusleek berek erabakirik, botoa eman baitute erakusketan bertan paratua zegoen hautestontzi batean.



Marzo de montaña

Mendialdia, el ciclo de montaña organizado por BKE Mendi Eskola, celebró en marzo su segunda edición. Durante todo el mes ha habido exposiciones, teatro, charlas y proyecciones de montaña con temática social, todas ellas vinculadas a la creación artística.

Una de las principales actividades del Mendialdia, aprovechando el 8 de marzo, ha sido la exposición "Montaña en femenino", de Jon Martínez Ibarra en Kulturgune. Por otro lado, las personas aficionadas a la montaña de Berriozar, pudieron vivir el estreno en euskera de

la obra de teatro "Mendia", de Mikele Urroz. El 20 de marzo se proyectó el documental "Confianza ciega", de Ana Zamorano en la Peña Labarga con posterior coloquio sobre el deporte inclusivo y, en concreto, el montañismo practicado por personas con discapacidad visual. La última actividad de este ciclo, el jueves 27 de marzo, fue para las proyecciones locales: "Kazbek, montaña helada" de Amaia Arangiz, Guratz Azpirotz y Olatz Azazeta y "El río subterráneo del Monte Perdido" de Jose Javier Ruiz

Zubikoa 'Jotas' y Grupo Espeleología Otxola. Además, al hilo del ciclo de montaña se han organizado los concursos de ilustraciones, fotografías y actividades de montaña, a las que se han presentado un total de 40 imágenes. Los trabajos permanecieron expuestos en el polideportivo durante dos semanas, y próximamente se comunicarán los ganadores decididos por el público a través de los votos depositados en una urna presente en la exposición.

Elikadura eta zahartze aktiboari buruzko solasaldia

● Elikadura osasungarria eta zahartze aktiboa eskutik helduta doaz. Izan ere, hirugarren adinean, elikadura orekatua izatea benetako erronka da sistema immunologikoa eta digestioak zaintzeko, mantentugaiak xurgatzeko, etab. Hori dela eta, heldu den apirilaren 10ean, solasaldi bat egingen da San Esteban erretiratuen elkartearen elikadura osasungarriaz aritzeko, bai eta elikadura zaintzeak zahartze aktiboan duen eragin onuragarriaz ere. Hitzaldia "Garai" nutrizio eta errendimendu zentroak emanen du.



Charla sobre alimentación y envejecimiento activo

● La nutrición y el envejecimiento saludable van de la mano y, es que, durante la tercera edad, mantener una alimentación equilibrada se convierte en un reto para poder cuidar el sistema inmunológico, las digestiones, la absorción de nutrientes, etc. Por eso, el próximo 10 de abril a las 18:00 horas se ha organizado en el Club de Jubilados y Jubiladas San Esteban una charla sobre la alimentación saludable y su influencia positiva en el envejecimiento activo de la mano del centro de nutrición y rendimiento Garai.



Kirol mundua, aniztasunaren alde

Otsailaren 19a kirolean dagoen LGBTIfobiaren kontrako Nazioarteko Eguna da. Kirolak gune seguru eta inklusiboa izan beharko luke, sexu-joerak edota genero-identitateak eragindako bazterkeriarik gabea. LGBTIfobiak, dena den, bere horretan dirau kirol esparru aunitzetan, eta kirolariei eta zaleei eragiten die. Egun horretan, Udalaren LGBTI+ programak LGBTI+ bandera batekin agertzera gonbidatu zituen Berrikilan kirol instalazioen erabiltzaileak, aniztasuna kirolean aldarrikatzeko eta, horrela, kirol munduko jende guztiak bere konpromisoa erakutsi zezan bazterkeriarik gabeko eta jende guztiarendako zabalik dagoen gunearekin.



La comunidad deportiva, a favor de la diversidad

El 19 de febrero se conmemora el Día Internacional contra la LGBTIfobia en el deporte. Este último debe ser un espacio seguro e inclusivo para todas las personas, sin discriminación por orientación sexual o identidad de género. Sin embargo, la LGBTIfobia sigue presente en muchos ámbitos deportivos, afectando tanto a deportistas como a aficionados. Durante la jornada, el programa LGBTI+ del Ayuntamiento invitó a todas las usuarias y usuarios de las instalaciones deportivas de Berrikilan a posar con una bandera LGBTI+ y un eslogan a favor de la diversidad en el deporte y así reflejar el compromiso de toda la comunidad deportiva con un espacio libre de discriminación y abierto a todas las personas.





Txolin lasterketa

Berriozarko herri lasterketaren lehen aldia

Primera edición del cross popular de Berriozar

1 20 lagun inguruk parte hartu zuten joan den martxoaren 1ean Txolin herri lasterketan, inauterietako larunbata kirola eginez hasita. Berriozarko Korrikolari Taldeak antolatuturik, 35 bikote aritu ziren helduen kategorian eta ia 50 parte-hartzaile haurren kategorian. Kategoría bakoitzeko bikoterik azkarrenek jaso zituzten sariak, bai eta mozzorro jantzi bitxienek ere. Aurten, gainera, parte-hartzaile guztiek kirol eskuoihal bana jaso dute, probaren logoarekin markatua.

A lrededor de 120 personas participaron en el cross popular Txolin el pasado 1 de marzo, comenzando así el sábado de carnaval haciendo deporte. Organizada por Berriozarko Korrikolari Taldea, la carrera contó con la participación de 35 parejas en la categoría de personas adultas y cerca de 50 participantes en la categoría infantil. Recibieron premios las parejas más rápidas de cada categoría y, también, los disfraces más originales. Además, este año, todas las personas participantes recibieron una toalla deportiva con el logo de la prueba.

Erraldoi Konpartsaren egoitza berria

Neska-mutil Nagusiak, Mahats-biltzailea eta Artzaina etxe berrian biziko dira udaberri honetatik aurrera. Izan ere, Lantzeluze pilotalekuan 15 urtetik gora egon ondoren, Berriozarko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa bere aurreko egoitzara itzuliko da, 2008ra arte Gipuzkoa etorbideko 17an egon baitziren. Lekua orain berritua dago eta oso egokia da irudiak gordetzeko eta asteko entseguak egiteko. Udalak beharrezkoak ziren obrak egin baititu paretak botatzeko eta, horrela, leku zabalzabala sortu da. Horrez gain, aldagelak ere egokitu dira.



La comparsa de Berriozar estrena sede

Mayordoma, Mayordomo, Vendimiadora y Pastor estrenarán nueva casa esta próxima primavera. Tras más de 15 años en el Fronton Lantzeluze, la comparsa de gigantes y cabezudos de Berriozar, vuelve a la que fue su sede hasta 2008, en la Avenida Guipuzko nº 17, pero con un espacio renovado para poder conservar sus figuras y realizar los ensayos semanales. El ayuntamiento ha realizado las obras pertinentes eliminando varios tabiques para crear un espacio diáfano y, además, ha acondicionado los vestuarios.

Laster, Apirileko Feria

● Aurten ere Berriozarren Apirileko Feria ospatuko da, apirilaren 26an eta 27an zehazki, Euskal Herria plazan, eta egunak jarduera sorta zabala ekarriko du. Horrela, hilaren 26an, goizez (larunbata) dantza saioa izanen da Aires del Sur taldearen eskutik (11:45ean), bai eta Savia Nueva koru rocieroaren emanaldia ere (12:45ean). Ondoren, herri bazkaria. Txartelak salgai daude Kirol, Herria eta K+DA tabernetan. Arratsaldean, berriz, Kelay taldea aritzeaz gain (18:30ean), jai akaberako ekitaldi bat ere egingen da (21:30ean). Feriaren azken ekitaldia igandean (hilak 27) egingen da, eguerdiko 12:00etan, meza rocieroa emanen baita. Bestalde, meza ondoren, Zulo Alai eta Bi Kolorete elkarteek "Pedacitos de Carnaval" txirigota ikuskizuna antolatu dute Doneztebe plazan (eguraldi txarra egiten badu, Euskal Herria plazako karpan egingen da), Yoli Álvarez eta José Antonio Chezaren eskutik.

Nueva edición de la Feria de Abril

● Berriozar celebrará los días 26 y 27 de abril una nueva edición de la Feria de Abril con un extenso programa de actividades en la Plaza Euskal Herria. El sábado 26 por la mañana habrá una actuación de baile a cargo de Aires del Sur (11:45 horas) y la actuación musical del coro rociero Savia Nueva (12:45 horas), para dar a paso a una comida popular cuyos tickets pueden comprarse en los bares Kirol, Herria y K+DA. Por la tarde tendrá lugar la actuación del grupo Kelay (18:30 horas) y un acto fin de fiesta (21:30 horas). El programa se cierra el domingo día 27 con una misa rociera a las 12:00 horas. Por su parte, las sociedades Zulo Alai y Bi Kolorete han organizado el mismo domingo a continuación de la misa rociera el espectáculo de chirigotas "Pedacitos de Carnaval" en la plaza San Esteban (en caso de mal tiempo, se hará en la carpa de la plaza Euskal Herria), protagonizado por Yoli Álvarez y José Antonio Cheza.



Musika Eskola Udaberriko kontzertuak

Aurten ere, Berriozarko entzunaretoan, herriko Musika Eskolako ikasleen udaberriko kontzertu zikloa egingen da.

Guztira, hamar kontzertu antolatu dira martxoaren 31tik apirilaren 11ra. Hona hemen entzunaldiak eta instrumentuak: gitarra (martxoak 31), biolina (apirilak 1), pianoa (apirilak 2), perkusioa eta kantua (apirilak 3), pianoa eta zeharkako flauta (apirilak 4), saxofoia, tronboia eta pianoa (apirilak 7), pianoa (apirilak 8), banda, oboea, txistua eta tronpeta (apirilak 9), gitarra (apirilak 10) eta baxua, akordeoia, trikitixa eta flauta (apirilak 11).

Matrikulazio kanpaina

Bestalde, orotaraziko dugu Musika Eskolak ate zabaleko eguna egingen duela heldu den maiatzaren 21ean eta egungo ikasleendako matrikulazio epea maiatzaren 19tik 21era bitartekoa izanen dela. Ikasle berriendako epea, berriz, maiatzaren 27tik 30era. Ordutegia, berriz, berbera guztiendako: goizean, 8:30etik 12:30era udaletxeko Auzo Bulegoan eta, arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara, Musika Eskolan bertan.

Escuela de Música Ciclo de conciertos de primavera

El Auditorio de Berriozar acogerá un año más el Ciclo de conciertos de primavera del alumnado de la Escuela de Música de la localidad.

En total se han programado diez conciertos entre el 31 de marzo y el 11 de abril protagonizados por los siguientes instrumentos: guitarra (31 de marzo), violín (1 de abril), piano (2 de abril), percusión y canto (3 de abril), piano y flauta travesera (4 de abril), saxofón, trombón y piano (7 de abril), piano (8 de abril), banda, oboe, txistu y trompeta (9 de abril), guitarra (10 de abril) y bajo, acordeón, trikitixa y flauta (11 de abril).

Campaña de matriculación

Por otra parte, recordar que la Escuela de Música celebrará su jornada de puertas abiertas el próximo 21 de mayo, y que el plazo de matriculación para el alumnado actual tendrá lugar los días 19, 20 y 21 de mayo y para el nuevo alumnado del 27 al 30 de mayo. En ambos casos, por la mañana de 8:30 a 12:30 horas en la Oficina de Atención Ciudadana, y por la tarde de 17:00 a 19:00 horas en la Escuela de Música.

2025eko jaietako kartel lehiaketa

● Aurten ere, Berriozarko Udalak lehiaketa antolatuko du 2025eko jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko. Lanak udaletxeko Auzo Bulegoan aurkeztu beharko dira maiatzaren 5etik 30era, 9:00etatik 13:30era.

Lehiaketan, Berriozarko gaiekin lotutako lanak aurkeztuko dira, edonork parte har dezake, eta egile bakoitzak gehienez hiru

lan aurkeztuko ditu. Lanak, betiere, jatorrizkoak izanen dira.

Hiru kategoria daude; haurrak, gazteak eta helduak. Lehen saria eskudirutan emanen da (600 euro). Herriko helduen kategorian (300 euro) eta haurren bietan (150 euro), berriz, sariak herriko dendetan trukatzeko txartelak izanen dira.


Concurso para el cartel de fiestas 2025

● Un año más Berriozar convocará un concurso para seleccionar el cartel anunciador de las fiestas de 2025. Los carteles deberán entregarse en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento desde el 5 hasta el 30 de mayo en horario de 9:00 a 13:30 h.

En dicho concurso, que se ajustará a temas relacionados con las fiestas de Berriozar, podrá participar cualquier

persona con un máximo de tres obras con la condición de que sean originales.

El concurso se dividirá en tres categorías; infantil, juvenil y mayores. El primer premio (600 euros) se concederá en metálico y en la categoría de mayores local (300 euros) y las dos infantiles (150 euros), el premio se recibirá a través de un vale a canjear en un establecimiento de la localidad.





Herri sahararrari elkartasuna agertzeko astea apirilean

Azken urteetan bezala, Sahararren aldeko Astea egingen da Berriozarren apirilako lehen astean, herriko auzo elkarteek eta bizilagunek antolatuz. Helburua da 2006tik hona bi herrien artean ehundu diren lankidetzak eta harreman lokarriak eustea, elkarri laguntzeko ahalegiarekin.

Egitarauari begira, film labur bat emanen da, solasaldia eta guzti, saharar errefuxiatuen kanpamentuz apirilaren 1ean, asteartearekin, 18:00etan, erretiratuen elkarteetan; solasaldi bat Mendebaldeko Sahararen egun dagoen egoeraz, apirilaren 3an (osteguna), 19:30etan, Kulturgunean, eta elkartasuneko herri bazkaria apirilaren 5ean, larunbatekin, 14:00etan hasita, Zulo Alai Elkarteetan.

Semana de solidaridad con el pueblo saharauí en abril

Como en años anteriores, la primera semana de abril se desarrollará en Berriozar la Semana de apoyo al Pueblo Saharaui, organizada por asociaciones y vecinos y vecinas de la localidad con el propósito de mantener los lazos de cooperación y acercamiento que unen a los dos pueblos desde 2006, materializados en esfuerzos de ayuda mutua.

El programa incluye la proyección de un cortometraje y posterior coloquio sobre los campamentos de personas refugiadas saharauis el martes 1 de abril a las 18:00 horas en el Club de Personas Jubiladas; una charla-coloquio sobre la situación actual del Sáhara Occidental el jueves 3 de abril a las 19:30 horas en el Kulturgunee y una comida popular solidaria el sábado 5 de abril a las 14:00 horas en la sociedad Zulo Alai Elkarte.

Berriozarko Eguna heldu den maiatzaren 24an

● 2000. urteaz geroztik, maiatzaren laugarren larunbatean, Berriozarko Eguna ospatzen dugu herrian. Aurten, larunbat hori maiatzaren 24a izanen da eta Eguzki plazan hainbat jarduerak egingen dira, herriko kultur taldeek antolatuz.

Egun horretan ohikoak izaten dira, besteak beste, parpailagileen topaketa, eskulanean feria eta kalderete bazkaria, eta hantxe arituko dira Txori Zuri dantza taldea, Hulargi haurren dantza taldea, Berriozarko Musika banda, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa edota "Aires del Sur" flamenko taldea. Egitarau osoa datozen asteotan emanen da ezagutzera eta denetarik izanen da, hau da, haur jarduerak, kirol arlokoak eta, batez ere, musika, dantza eta besta giro ederra.



Berriozar celebrará su día el próximo 24 de mayo

● Desde el año 2000, el cuarto sábado de mayo la localidad celebra el Día de Berriozar. Este año, la plaza Eguzki será el escenario el sábado 24 de mayo de diferentes actividades que los grupos culturales de Berriozar organizan.

Los ya tradicionales encuentros de encajeras, feria de artesanía o comida de calderetes, entre otros, estarán acompañadas de actuaciones del grupo de danzas Txori Zuri, danzas txikis Hulargi, la Banda de Música de Berriozar, la Comparsa de Gigantes y Cabezudos o el grupo de flamenco "Aires del Sur".

En la programación completa, que se dará a conocer durante las próximas semanas, no faltarán actividades infantiles, deportivas y, sobre todo, música y baile.

Antzerkia, indarkeria matxisten eta arrazisten aurkako jarrera lantzeko

Azala azalarekin' antzerki arloko sorkuntza tailer bat da gazteendako, eta prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzen ditu indarkeria matxistak eta arrazistak ezabatze aldera. Esku-hartze sozialeko proiektu pedagogikoa da, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzendua. Ikasleak, izan ere, antzerki sorkuntzako prozesu batean ari dira, artista profesionalek gidaturik.

Aurtengo edizioan, Berriozarko eta Sarrigurengo 14-16 urte arteko gazteek antzezlan bat sortu dute, Lore More eta Calatea Teatro konpainiek arlo artistikoa zuzendurik. Lana martxoaren 25an Berriozarko entzunaretoan eman ondoren, ikasleak Madrilera joanen dira antzezlanaren "Azala azalarekin" proiektua ixteko ekitaldian taulartzeko, gainontzeko talde parte-hartzaileen aurrean.



Teatro para trabajar contra las violencias machistas y racistas

Piel con piel' es un taller de creación teatral para jóvenes en el que se aborda la prevención, formación y sensibilización para erradicar las violencias machistas y racistas. Se trata de un proyecto pedagógico y de intervención social dirigido a alumnado de 4º de ESO y 1º de Ba-

chillerato que participa en un proceso de creación escénica dirigido por un grupo de artistas profesionales.

En la presente edición jóvenes de entre 14 y 16 años de Berriozar y Sarriguren han creado una obra bajo la dirección artística de las compañías Lore More y Calatea Teatro. Tras la presentación el 25 de marzo en el Auditorio de Berriozar, el elenco viajará a Madrid para representar la obra en el cierre del proyecto Piel con piel ante el resto de grupos participantes.

Eskaintza zabala udako kanpalekuetan

● Berriozarko Udaleko gaztegunek hiri-kanpalekuak antolatu ditu uztailaren 21etik abuztuaren 8ra bitarte, asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Jarduera guztiak gai beraren barnean daude kokatuta, betiere talde bakoitzaren adin eta beharretara egokituta (euskaraz eta gaztelaniaz), modu inklusibo, atsegin, kooperatibo eta dibertigarrian lan eginez beti.

Aurreinskripzioa maiatzaren 5etik 9ra egonen da zabalik 948 012 012 zenbakiaren edo Udalaren webgunearen bidez (www.berriozar.es). Lehenetsunez, jarduera izanen da 2013tik 2021era bitarte jaiotako haurrentzat (bi urte horiek barne), Berriozarren edo Txalupainen erroldatuak daudenez, hain zuzen. Udalerri horietan erroldatuta ez daudenez izena eman ahal izanen dute baina itxaron zerrandan sartuko dira.

Bestalde, Lehen Hezkuntzako (7 egun) eta DBHko (5 egun) ikasleek Zuhatzako udalekuetara joateko aukera izanen dute uda honetan, hala euskaraz nola gaztelaniaz. Leku paregabea da Zuhatza naturaz eta uretan eskaintzen diren jardueraz gozatzeko, bai eta Kiliki elkarteak antolatuko dituen beste jardueraz batzuek gozatzeko ere (jolasak, gaualdiak...).

Izena emateko epea zabalik egonen da martxoaren 31tik apirilaren 6ra, elkartearen webgunearen bidez edota, bestela, aurre Kulturgunean, **apirilaren 7an**, 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 18:30era. Izena ematean, Berriozarren erroldatuak daudenez izanen duten lehenetsuna eta/edo herriko ikastetxeetako ikasleek.

Udal dirulaguntza

Udalak dirulaguntza ematen die Kiliki elkartearen kanpaldietan parte hartzen dutenen familiei, kanpaldiaren gastuaren % 40 ordaintzen baitu. Eskabideak irailan egin beharko dira.

ERAREN webgunean, gainera (era.eus), Berriozartik kanpo antolatzen diren gainerako euskal kanpaldien eskaintza ageri da.

Amplia oferta de campamentos de verano

● El Espacio Juvenil del Ayuntamiento de Berriozar ha organizado campamentos urbanos que tendrán lugar entre el 21 de julio y el 8 de agosto, de lunes a viernes de 9:00 a 14:00 horas. Enmarcadas dentro de una misma temática, se adaptarán las actividades a las edades y necesidades de cada grupo (euskera y castellano), trabajando siempre de forma inclusiva, amable, cooperativa y divertida.

La **preinscripción estará abierta del 5 al 9 de mayo** a través del teléfono 948 012 012 o de la web del Ayuntamiento (www.berriozar.es). De manera prioritaria, la actividad está dirigida a niñas y niños nacidos entre los años 2013 y 2021 ambos incluidos, empadronados en Berriozar o Justapeña. Las personas no empadronadas en estos municipios podrán hacer la inscripción, pero quedarán en lista de espera.

Por otra parte, el alumnado de Primaria (7 días) y ESO (5 días) tendrá la oportunidad este verano de ir de campamento a Zuhatza tanto en castellano como en euskera. Las personas asistentes podrán disfrutar de la naturaleza y de las actividades acuáticas que allí se ofrecen y de otras actividades organizadas por la Asociación Kiliki (juegos, veladas...). El plazo de **inscripción estará abierto del 31 de marzo al 6 de abril** a través de la página web de la Asociación y de manera presencial **el 7 de abril** de 13:00 a 14:00 y de 17:30 a 18:30 en el Kulturgunee. A la hora de apuntarse, tendrán prioridad las personas empadronadas en Berriozar y/o el alumnado de los centros educativos de la localidad.

Subvención municipal

El Ayuntamiento concede una subvención a las familias de las y los participantes en los campamentos de la Asociación Kiliki, abonando el 40% del gasto del campamento. Las solicitudes se deberán realizar en el mes de septiembre.

Además, en la página web de ERA (era.eus) está la oferta del resto de campamentos en euskera que se organizan fuera de Berriozar.

ekia BIO denda

ekologia - osasuna



Yoli, Marian eta Ana

Bertako ekoizle ekologikoen aukera zabala
Producto ecológico de cercanía

Ordutegi jarraia astelehenetik ostiralera.

Horario continuo de lunes a viernes.

09:00 - 20:00

Larunbatetan Sábados

09:30 - 13:30

Kaleberri, 2, Berriozar - 948 77 33 25 |  688 87 60 08